

LIBURU ETA DISKO ESKAINTZA

2014ko uda





SAN FERMINETAN, LESAKAN

John Andueza Altuna

Donostiako Bilintx institutura itzuli da John Andueza, aurreko nobela arrakastatsuan bezala) oraingoan, DBHko 4. mailakoen abenturak kontatzen dizkigu: Danel eta Ximon lagunak dira protagonistak, baita Ximonen andregai Amaia eta gelako gainontzekoak ere: zintzoak, alprojak, xaloak, bihurriak... Ikasketa amaierako bidaia egiteko asmoa dutenez, dirua lortzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte, baina halako batean ezusteko bat gertatu eta beste bide bat hartuko dute gertakariak.

Maila: B1 **Prezioa:** ~~13,50~~ 11,45 € **Orr:** 160



ZORTZI IPUIN GOTIKO

Jon Eugi Aierdi

Beldurrezko zortzi ipuin biltzen ditu liburu honek. E.A. Poe, R.L. Stevenson edo Bram Stoker handien tankeran, hainbat gai eta giro erabili ditu egileak izu sentimendu hori pizteko: gazte talde batek Halloween gauean hilerrira egindako bisita, etxe sorginduak, begizkoak eta madarikazioak, ehorztetze bateko langilearen ezustekoak, mamuak eta deabruak... Esku trebez eta estilo aberatsez idatzitako terrorezko kontakizunak, oro har literaturazale guztien gozamenerako.

Maila: B2 **Prezioa:** ~~11,00~~ 9,35 € **Orr:** 113



SUGAAR

Ramon Olasagasti Aiestaran / Bruno Hidalgo Garcia (IL)

Gabonak iritsi dira, eta Eki gaixotu egin da, medikuek antzematen ez dioten gaixotasun arraro batekin. Haren arreba Izadik susmoa du Eki eta bere lagun Martxel jolasean ibili diren Lindozuloko putzuak izan dezakeela zerikusiren bat gaitzarekin. Bere kasa ikertzen hasi eta hainbat sekretu deskubrituko ditu aintzira misterioitsu horren inguruan: zer ezkutatzen diote aitonak eta Zamoneko Joxek? Zer eramaten du zakuan putzura Sagastibeltzako Gartzenek? Zer gertatu zitzaion haren anaia Paulo hankamotzari? Eta, batez ere, zer edo nor da Sugaar?

Maila: B2 (10-12 urte) **Prezioa:** ~~12,00~~ 10,20 € **Orr:** 80



ARGAZKI ALBUMA

Antton Kazabon Amigorena

Ander trantze zail bat igarotzen ari da Aintzane ezagutu duenean, bera baino hamar urte zaharragoa den erizaina. Harreman berri horri esker berreskuratuko ditu bizipoza eta alaitasuna. Egun batean Anderrek bere argazki albuma elkarrekin ikustea proposatuko dio Aintzaneri. Argazkiak ikusiz, besteak beste, aurrez bikote zuen Maddirekin izandako zenbait bizipen ilunen berri eman beharko dio Anderrek.

Maila: B2 (12-16 urte)

Prezioa: ~~8,80~~ 7,50 €

Orr: 92



TRIPOLI DOKTOREA

Karlos Linazasoro Izagirre/ Bruno Hidalgo Garcia (IL)

Anbulatorioko itxarongela lepo zegoen, gainezka. Beti bezala, goizeko zortzietan puntuan jarri zen martxan hormako kontagailu erraldoia. Tripoli doktorea eta Olga Tokarczukowa erizaina prest zeuden gaixoak artatzeko. Udaberria iritsi berria zen, ordea, eta Tripoli doktoreak nahikoa lan bazuen sudurreko zuloatik irten zitzaion geranioarekin zer egin ez zekiela. Lehenengo gaixoak, gingiletatik mapamundi bana zintzilik zuela kontsultan sartu zen lorezainak, eman zion erremedioa. Jarraian, bata bestearen atzetik sartu ziren kontsultara ajerik xelebreenak jotako gaixoak. Azkena, Karl Linazasorr, beti norabide okerrean zebilen poeta.

Maila: B1(12 urte)

Prezioa: ~~10,95~~ 10,68 €

Orr: 100



NEVADAKO EGUNAK

Bernardo Atxaga

Nevadako egunak kronika da hasieran; nobela, bukaeran. Liburuko pieza guztiak dira bereziak, baina motiboak eta pertsonaiak, beti berberak. Obabakoak bezain aldakorra da, eta Soinujolearen semea bezain trinkoa. Ez dago orrialde berdinek, ezta orrialde solterik ere.

Liburuaren atmosfera nagusia biografiarena da, pieza guztiek giza esperientzia baitute abiapuntu. Egileak bere berri ematen du haietan, zer bizi izan zuen, zer pentsatu eta imajinatu zuen Estatu Batuetako Nevadan pasatutako denboran; baina beste pertsonaia batzuk ere hartzen ditu aintzat, hurbilekoak eta arrotzak, lehengoak eta oraingoak. Lekuek ere badute garrantzia, batez ere, desertuak.

Maila: C1

Prezioa: ~~23,00~~ 19,55 €

Orr: 464



ERRAIK

Danele Sarriugarte Mochales

Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu eleberriak; irakurleari, ordea, emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, obsesio bihurtuta. Horregatik, ez ohiko intentsitatez barneratu da idazlea pertsonaiaren barrunbeetan, haren zokorik ezkutuenak, erraiak, agerian utziz, ez bere buruaren ez inoren aurrean biluzteko lotsarik gabe. Aldez aurretiko aurreiritzirik gabeko barne bakarriketa batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bikote harremanak xehatuko ditu, inoiz utzi ez duten mamuen aurrez aurre jarritz

Maila: B2

Prezioa: ~~16,85~~ 14,30 €

Orr: 180



LASAI, EZ DA EZER GERTATZEN


Ana Malagon Zaldua

Bakardadearen mapa moduko bat da liburu hau, Iban Zaldua idazleak hitzaurrean dioenez. Frustrazioaren koordinadak erakusten dizkigu bere orrietan, poztasun ezaren eta inkomunikazioaren kartografia. 162 mikro-ipuin idatzi ditu egileak, inoiz orria gainditu gabe, eta neurri murriz horretan unibertso pertsonal bat eraiki du: hiritarra, gaurkoa, gure egunerokotasunari ironiazko begirada bat eskaintzen diona.

Maila: B2

Prezioa: 16,85 14,30 €

Orr: 172



ODOLAREN DEIA

Iñaki Irasizabal Izagirre

Gaztetatik elkarren berri izan ez duten anaia bi berriro elkartzen dira, aitaren heriotza dela eta. Nerabe zakar eta bortitzak izan ziren biak behinola. Gazteenak ganorabako samarra izaten jarraitzen du, asteburuetako zerbitzari gisa bizimodua nola-hala ateraz; zaharrena guraso zintzo eta eraikuntzako negozio-gizon serio bihurturik dago orain. Enpresariak tabernariaren laguntza behar du ordea.

Maila: B2

Prezioa: 11,30 9,60 €

Orr: 120



INON EZ, INOIZ EZ

Iban Zaldúa Gonzalez

Ipuin liburu sendo eta mardula prestatu du Zalduak, bere azken urteetako lanaren emaitza. Estilo, gai eta luzera desberdineko 38 ipuin bildu ditu guztira, hiru parte nagusi eta eranskin batean. Zalduak ohi duen maisutasuna, zorroztasuna, fikzio-rako asmamen izugarria eta zirti-zarta banatutako ironia dosiak topatuko ditu irakurleak bertan. Ipuinen artean badira fantastikoak eta errealistak, metaliteratura lantzen dutenak, eguneroko bizitzaren ifrentzua erakusten dutenak eta azkenaldiko gure panorama politikoa erretratzen dutenak.

Maila: C1

Prezioa: ~~22,00~~ 18,70 €

Orr: 296



ZANGOTRABA


Juan Kruz Igerabide Sarasola

Eleberriko protagonistak bizitza dolea darama: Joxe aduanetako langilea da eta Juan Fernandez, maifasun kontuetan espezializatutako detektibea. Biak dira bat eta bera? Edo hobe genuke gizakiaren sakonean murgildu eta nortasun konplexuaz mintzatu? Protagonistak bizi dituen garaiek ere ez dute laguntzen nortasun hori orekatzen. Garai zoroak, transizio garaiak: ametsa, ilusioa eta eldarnioa elkarrekin dantzara irten ziren urteez ari da nobela.

Maila: C1

Prezioa: ~~17,90~~ 15,20 €

Orr: 240



ABISALIA

Asier Serrano Lasa


Personaien ordoki abisaletara jaisteko, Serranok ipuinek beren baitan dituzten teknika guztiak erabiltzen ditu. Literaturaren pulsio poetikoari esker, indar handiko irudi estetikoak sortzen ditu, baina bere hitzen oihartzuna harago doa: lur honetan edo lur honen sakonean baino are sakonago dagoen beste batean bizi garen gizakion bulka-dez galdetzea du helburu.

Unibertso berria emalduko dugu izara azpian, Abisalia izenekoa, adibidez. Lurrirara etengabeak sortuko ditugu eta besarkadek aldiro eskatuko dute atseden, baina ez gara osatzen dugun penintsulaz bereziko.

Maila: C1

Prezioa: ~~17,00~~ 14,45 €

Orr: 180



ALFERRIK EZ BALITZ

Karlos Linazasoro Izagirre

Mila aforismo ondu ditu Karlos Linazasorok liburu honetarako. Genero berezia da aforismoa: itxuraz simplea, ondo egiteko trebetasun aparta behar du, tolosarrak erakusten duena bezalakoa. Gogoeta txundigarriak, poesia printzak, mikro-ipuinak, adarjotzeak, paradoxak eta bestelakoak aurkituko ditugu pasarte laburrotan, guztiak ere egileak ohi duen zorrotasunez eta ironiaz landuak.

Maila: C1

Prezioa: ~~17,50~~ 14,85 €

Orr: 176



EZ ZEN DIRUAGATIK

Ana Garcia Jaka

Emakume zakar eta zabar samarra da Olga, ez lanik, ez dirurik, gaztarotik urruntzen eta etorkizunik gabeko harreman erdipurdiko batean kateatua. Bizikidea du Dani, etxetik ihes egin eta zerbitzari gisa lan egiten duen gazte txoa. Eta hiruki atipikoa osatzera dator Mikel, bizimodu normalagoa daraman adin ertaineko gizasemea, baina iraganetik dakarren zamatik askatu ezin duena. Pertsonaien harremanetan, haien psikologian eta sentimenduetan oinarrituriko eleberria dugu hau, baina ez inola ere sentimentala eta gozoa.

Maila: B2

Prezioa: ~~16,00~~ 13,60 €

Orr: 160



GURE JERUSALEM GALDUA

Erresuma eta fedea III
Aingeru Epaltza Ruiz de Alda

Iruñera doa Joanes Mailu, errege Henrikeren mandatuz, erresuma galduko herritarak matxinatzena bultzatzeko, espainol inbasoreak kanpora ditzaten. Espioi lanak ez dira horren errazak, ordea, nafar gehienek leialtasuna ez baita Mailurena bezain kartsua: gaztelau zitalek badituzte euskaldunen artean beren zerbitzari eta eskumakilak.

Aventura betetik dator trilogiaren azken eleberria: gudu odoltsuak eta amodio sutuak, erregeen aretoak eta kartzela krudelak, mendeku eta traizioak, konspirazio eta sabotajeak; horrez gain, malenkonía kutsu batek blaitzen du kontakizuna, urteak iragan ahala Mailu zahartu, mila jipoi hartu eta bere printzipioei uko egin ez dien bakarra dela ohartzen denean.

Maila: C1

Prezioa: 25,00 21,25 €

Orr: 489



AZKEN AFARIA

Xabier Montoia

Bilboko txoko batean bazkaltzeko bildu dira lau gizonetako, gaztetan elkarrekin zuzenbide ikasketak egiten ibili izandakoak. Ogibidez abokatua dira bi, idazlea bat eta politikan dihardu laugarrenak. Euren arteko adiskidetasunak, ordea, proba gogorra izango du aurrez aurre, baten semea atxilotzen dutenean.

Maila: C1

Prezioa: 18,50 15,70 €

Orr: 240



PENDRIVE


Arrate Mardaras

Pendriveak, testu solte batzuekin batera, sei ipuin dakartza. Kontakizun gehienetan ihesean dabilen jendea ageri da, leku arrotzean dagoena derrigorrean, portu zorionekora bueltatzeko borondatearekin. Eta denetan, amodioa mintzagai. Izan ere, ihesi dabilenak maitasuna behar du lagun.

Maila: B2

Prezioa: ~~16,00~~ 13,60 €

Orr: 135



ESAN ETA EGIN

Alex Sardui

Gatibu taldeko Alex Sardui kantariaren prosa oso zuzena eta erraza da; gainera, taldearen letrek duten erakargarritasuna bilatu Alexek bere lehen nobelan. 50 eta 60ko hamarkadako Euskal Herrian kokatuko istorioa da, baina fikziozko izenekin. Lagun koadrila baten egunerokoak segituan ekarriko ditu ezusteak, eta bukaerak ere harrিতa utziko du irakurlea. Hamalau urtetik gorako irakurleentzat, euskaldun zein euskaldun berri. Alex Sarduik zintzotasunez idatzi du liburua. Esandakoa, esan eta egin.

Maila: B1

Prezioa: ~~20,00~~ 15,00 €

Orr: 144



EZINEAN

Berriz

Preziora: ~~10,50~~ 8,90 €



ENKORE

Kanala

Preziora: ~~10,50~~ 11,50 €



**KEN ZAZPI ETA
EUSKADIKO
ORKESTRA
SINFONIKOA**

Preziora: ~~10,95~~ 16,10 €



ZEA MAYS

Da

Preziora: ~~10,95~~ 11,85 €



ZE ESATEKI!

Ibuprofeno

Preziora: ~~11,50~~ 9,75 €



KORRONTZI

Tradition 2.1


Preziora: ~~17,50~~ 14,85 €



KASHBAD

Arrakala

Preziora: ~~10,95~~ 9,30 €



KHERAU

Aukhera

Preziora: ~~11,95~~ 10,15 €



ARIAN A1.1 IKASLEAREN LIBURUA

Cd + erantzunak + transkripzioak

Prezioa: 22,00 17,60 €



ARIAN A1.1 LAN-KOADERNOA

+ erantzunak

Prezioa: 11,50 9,20 €



ARIAN A1.2 IKASLEAREN LIBURUA

Cd + erantzunak + transkripzioak

Prezioa: 22,00 17,60 €



ARIAN A1.2 LAN-KOADERNOA

+ erantzunak


Prezioa: 11,50 9,20 €



ARIAN A2.1 IKASLEAREN LIBURUA

Cd + erantzunak + transkripzioak

Prezioa: 24,00 19,20 €



ARIAN A2.1 LAN-KOADERNOA

+ erantzunak

Prezioa: 15,50 12,40 €



ARIAN A2.2 IKASLEAREN LIBURUA

Cd + erantzunak + transkripzioak

Prezioa: 24,00 19,20 €



ARIAN A2.2 LAN-KOADERNOA

+ erantzunak


Prezioa: 15,50 12,40 €



ARIAN B1.1 IKASLEAREN LIBURUA

Cd + erantzunak + transkripzioak

Prezioa: 22,00 17,60 €



ARIAN B1.1 LAN-KOADERNOA

+ erantzunak

Prezioa: 15,50 12,40 €



TANGO NOIZEAN BEHIN (+cd)

Miren Agur Meabe / Alex Orbe Ferreiro (IL)

Malena au pair gisa etorri da Buenos Aiestik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian, hainbat jenderekin harremanak izango ditu, batzuk atseginak eta beste batzuk mingotsak, eta aspaldi-aspaldi Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutzeko aukera ere izango du.

Maila: A1

Prezioa: 12,00 9,60 €

Orr: 72



OTSOA (+cd)

Josu Lartategi / Pedro J. Colombo (IL)

Otsoa lasai bizi da bere mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratu eta familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: gizakia. Eta gizakia etsai beldurgarria eta krudela da. Baina zer gertatuko da borroka horretan otsoa ere beldurgarria eta krudela denean? Nor nagusituko ote da?

Maila: A1

Prezioa: 12,00 9,60 €

Orr: 62



BORROKALARI ARGITSUAK (+cd)

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (IL)

Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu Borrokalarri argitsuak izeneko liburu honek. Gaur egun, gure inguruko edozein tokitan aurki ditzakegu antzeko bizimodu nekoso eta korapilatsuak. Hala ere, pertsonaia guztiak dira borrokalarriak: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bizitza menderatzeko.

Maila: A1

Prezioa: 12,00 9,60 €

Orr: 72



SIBERIAKO LOREA (+cd)

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (IL)


Andre zaharraren bizitza lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxugarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da.

Emakume gaztearen bizitza etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonia-empresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bizitza hori gotik behera aldatu da.

Maila: A1

Prezioa: 12,00 9,60 €

Orr: 64



NAIA CHINATOWN INGURUAN (+cd)

Alvaro Rabeli / Pedro J. Colombo Lopez (IL)


Naia neska gaztea ez da Archer detektibe famatua, ez da Los Angeles-en edo New York hirian bizi. Naia gure artean bizi da, hemengoa da, tiftaniozko museoaren ondoan ibiltzen da egunero.

Naia emakume langilea eta ikaslea da. Naia hirikoa da, gaurko kultura anitzeko hirian bizi da. Naiak ez du detektibe bokaziorik, baina lan egin behar du bizimodua ateratzeko. Naia zinema beltza da. Naia gure bizitzaren itsasgora eta itsasbehera da. Naiak guk bezala sufritzen du, maitatzen du. Naia Chinatown da, Jack Nicholson gabe.

Maila: A1

Prezioa: 12,00 9,60 €

Orr: 76



ATZAPAR ARRASTOAK (+cd)

John Landon / Alex Orbe Ferreiro (IL)

Hiru bat metro izango zen altu munstro hura.

Gelako sabairaino iristen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk.

Hegazti-mokoa zuen munstroak, baina hegorik ez. Besoak zituen soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Eskuetan eta oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorriorriak.

—Atzapar horiek lau lagun hil dizkirate —esan zuen ahots batek.

Maila: A2

Prezioa: ~~12,00~~ 9,60 €

Orr: 74



KATU BELTZA (+cd)

John milne / Kepa Orbe Ferreiro (IL)

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen 7 protagonista Salahadin el Nur polizia inspektorea da. Poliziaren barnean, Antzinateko Ondasunen Sailean egiten du lan. Egipton dagoen europar arkeologo bat hilda agertu ondoren, balio handikoa den estatua txiki bat berreskuratuzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista-talde baten arrastoaren atzetik.

Maila:A2

Prezioa: ~~12,00~~ 9,60 €

Orr: 72



NAIA INDIA GORRIETAN (+cd)

Alvaro Rabelli Yanguas / Pedro J. Colombo Lopez (IL)

Papiroflexia biltzar batera gonbidatuta zegoen gizon bat desagertu egin da ezustean. Haren maitaleak arrastoa galdu du. Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak lanak izango dituzte gizona aurkitzen. Hiriko ilunpe ezezagunetara eramango ditu kasuak bi neskak, baita lur azpira ere; hiri honetako aspaldiko india gorrietara, hain zuzen ere.

Maila: A2

Prezioa: ~~12,15~~ 9,70 €

Orr: 72



ZISNEA ETA UHARTEA (+cd)


Miren Agur Meabe Plaza / Iñaki G. Holgado (Il)

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten; adibidez, uhartera egindako txangoa. Egun haietan, hain zuzen ere, bitxi-lapurretak gertatu ziren Bilbon, eta polizia hoteleraino heldu zen, galdezka. Egoera larritu egingo da Kermanentzat. Juliak ere alde egingo du. Orain, berrogei urte igaro eta gero...

Maila: A2

Prezioa: ~~12,15~~ 9,70 €

Orr: 64



GEMINIKO NEBULOSA (+cd)

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (Il)

Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hydra basera zama misterioitsu bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

Maila: A2

Prezioa: ~~12,15~~ 9,70 €

Orr: 68



MAPA

Euskal Herria eta bere herrialde historikoen kondaira

Preziora: ~~12,00~~ 10,00 €



EZ DA HAIN FAZILA

Denpora pasa bilduma berezia

Preziora: ~~5,00~~ 4,00 €



ELHUYAR HIZTEGIA

(Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco)

Elhuyar Hiztegiaren hirugarren edizioa 2006ko azaroan argitaratu zen. Elhuyar Hiztegi berria osatuagoa eta gaurkotuagoa dator eta 88.000 sarrera, 20.000 azpisarrera, 150.000 adiera eta 100.000 adibide biltzen ditu. Bi ataletan banatuta: euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara. Eguneratze lanak egiteko honako hauek hartu dira kontuan: hiztegi argitaratuak, terminologia-lanak edo estilo-liburuak, euskararen hizkuntza-ereduari buruz piztu diren eztabaidak, kontsultarako ezarri diren corpusak...

Prezioa: ~~48~~ 38,40 €



ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA

(Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco)

Argitalpen berritua. 50.000 sarrera, 18.550 adibide. Lexiko arrunta eta teknikoa. Izen bereziak: leku-izenak, pertsona-izenak. Oinarriko gramatika-eranskina euskarazeta gaztelaniaz.

Prezioa: ~~25~~ 15 €



SINONIMOEN KUTXA SINONIMO ETA ANTONIMOEN HIZTEGIA

(2010ean argitaratua)

Lexikoa aberasten eta hizkuntzaren ezagutza sakontzen lagunduko duen material osagarria da:

- Euskarazko sinonimo eta antonimoen hiztegia
- Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren arabera moldatua
- Iparraldean eta Hegoaldean hainbat euskalkitan erabiltzen diren formak elkarren ondoan
- 18.696 sarrera eta 1.446 azpisarrera
- 24.535 adiera
- 63.661 sinonimo
- 23.449 antonimo
- Sinonimoak eta antonimoak oharrez eta adibideez hornituak

Prezioa: ~~20~~ 16 €



EUSKAL GRAMATIKA OSOA

Prezioa: ~~64,48~~ 54,80 €



Egin zaitez harpidedun!



IFK/NA.....
CIF/DNI

Izen-abizenak.....
Nombre y apellidos

Helbidea.....
Dirección

Posta Kodea..... **Herria**.....
Codigo postal Localidad

Herrialdea..... **Telefonoa**.....
Provincia

Ordaintzeko era..... **Sinadura**.....
Forma de pago Firma

Banku bidez..... (20 digitu)
Domiciliación bancaria

Bankuaren izena.....
Nombre del banco

Urte osoko harpidetza*
Hego Euskal Herria eta Espainia:
29 euro
Ipar Euskal Herria: **36 euro**
Europa: **50,5 euro**
Europatik kanpo: **83 euro**

Informazioa gure fitxategian gordeko da. Informazio hori isilpekoa da. Interesdunak ezaba edo alda dezake. Datuen kontrolak eta trataerak Norbanakoen Datuak Babesteko Lege Organikoari men egin behar diote.

La información será guardada en nuestro fichero. Dicha información es confidencial. El interesado puede modificar o borrarla. El control y tratamiento de los datos deben cumplir la Ley Orgánica de Protección de Datos Individuales.

* Kontrakorik agindu ezean, harpidetza urterro berrituko da. En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará cada año.